

**2011KO UZTAILAREN 7AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Zazpia.

HILABETEA: Uztaila.

URTEA: Bi mila eta hamaika.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK:

- M^a Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Iñaki Saldaña Herrero
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M^a Luisa Valles Fernandez
- Leire Artola Ugalde
- Iñigo Arrese Artabe
- Encarna Arrieta Telleria
- Eva Diaz del Rio
- Fernando Boada Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Unai Baztarrika Otegi

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2011ko ekainaren 11ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- BATZARRALDIAK. Osoko Bilkuren maiztasunari buruzko proposamena.

Koldo Agirre Mujika, Alkate jaunak (BILDU), ondorengo proposamenaren berri eman du:

“ALKATEAREN PROPOSAMENA

2011ko maiatzaren 22an izandako toki hauteskundearen ondorioz, 2011ko ekainaren 11n aparteko bilera egin zen, Korporazio berria eratzeko. Orain azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretuaren bidez onartutako Toki Entitateko Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren, 38. artikulua araberak, Udalbatza Osoak egin beharreko bilera arrunten maiztasuna zehaztea dagokio.

Apirilaren 21eko 11/1999 Legeak Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeari ematen dion erredakzioak (46.2a artikulua), Udalbatza Osoak egin beharreko ohiko bileren maiztasuna biztanleen arabera izango direla aurreikusten du. Beraz, Beasaingo udalerrak 13.380 biztanle dituzenez, gutxienez, bi hilabete behin bilera egitea dagokio.

Beraz, azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretuaren bidez onartutako Toki Entitateko Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren, 38. artikulua araberak, nahiz Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2a) artikulua araberak, Alkatetza honek erabaki-proposamen hau egiten dio Udalbatza Osoari:

LEHENIK: Udalbatza Osoak egin beharreko ohiko bilerak udaletxeko batzar aretoan, egingo dira, **hilabete bakoitzaren azkeneko ostegunetan, arratsaldeko zazpitan** lehenengo deialdian eta bi egun geroago ordu berdinean bigarren deialdian eta gutxienez bi hilabete behin.

BIGARREN: Alkate jaunari baimena ematea, bere inizatibaz edo talde politikoen bozeramaileak horrela eskatuta eta arrazoituta, ohiko udalbatza osoa egiteko data eta ordua aurreratzeko edo atzeratzeko, gehienez bi aste, nahiz eta egun berria aurrez ezarritako dataren hilabetekoa ez izan. Dena dela beti ere ohiko izaera izango du.

HIRUGARREN: Erabaki honen berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ematea.”

Alkate jaunak esan du, proposamena horrela banatu bada ere, Fernando Boada jaunak horrela eskatuta, Plenoko bilerak, hilabete bakoitzaren azkeneko ostegunetan izan ordez, **hilabete bakoitzaren lehenengo ostegunetan** izatea proposatzen duela.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Aralar, PP, H1 eta EAJ talde politikoetako ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE) proposamenaren bigarren puntuari buruzko ondorengo aldaketa proposatu du: “Alkateak, udal bozeramaileei aldeztu aurretik kontsulta eginda eta gehiengoaren adostasunarekin, edo talde politikoaren bozeramaileek horrela eskatuta eta beti ere arrazoituta, ohiko udalbatza osoa egiteko data eta ordua aurreratu edo atzeratu dezake, gehienez bi aste, nahiz eta egun berria aurrez ezarritako dataren hilabetekoa ez izan. Dena dela beti ere ohiko izaera izango du.”

Beste guztiek oniritzia azaldu dute PSE-EE/PSOEko ordezkariak egindako aldaketarekiko.

Bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**LEHENIK:** Udalbatza Osoak egin beharreko ohiko bilerak udaletxeko batzar aretoan, egingo dira, **hilabete bakoitzaren lehenengo ostegunetan, arratsaldeko zazpitan** lehenengo deialdian eta bi egun geroago ordu berdinean bigarren deialdian eta gutxienez bi hilabetean behin.

BIGARREN: Alkateak, udal bozeramaileei aldeztu aurretik kontsulta eginda eta gehiengoaren adostasunarekin, edo talde politikoaren bozeramaileek horrela eskatuta eta beti ere arrazoituta, ohiko udalbatza osoa egiteko data eta ordua aurreratu edo atzeratu dezake, gehienez bi aste, nahiz eta egun berria aurrez ezarritako dataren hilabetekoa ez izan. Dena dela beti ere ohiko izaera izango du.

HIRUGARREN: Erabaki honen berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ematea.”

3.- BATZORDE TXOSTENGILEAK. Batzorde txostengileak eratzeko proposamena.

Koldo Agirre Mujika, Alkate jaunak (BILDU), proposamenaren berri eman du:

“**GAIA: BATZORDE TXOSTENGILEEN SORKUNTZA ETA OSAKETA**

1.- Batzorde txostengileak, izaera osagarriko organo kolegiatuak dira eta beren helburua, udalbatzaren osoko bilkuretan edota gobernu batzordetan erabaki behar

diren gaiak aztertzea, haiei buruzko txostenak egitea edota egindako kontsultei erantzutea da.

2.- Aurreko agintealdian, ondorengo batzorde txostengileek aritu dira Udal honetan:

- 1.^a- Hazienda- eta Ondare-batzordea.
- 2.^a- Gobernazio-batzordea.
- 3.^a- Hirigintza batzordea.
- 4.^a- Euskara eta Kultura.
- 5.^a- Gazteri eta Kirol-batzordea.
- 6.^a- Zerbitzu- eta Landa-ingurune batzordea.
- 7.^a- Gizarte-ongizate batzordea.
- 8.^a- Ingurugiro batzordea.
- 9.^a Igartzako batzorde berezia.
- 10.^a Arana kalea birgaitzeko batzorde berezia.

Gainera, hezkuntza ordezkari eta emakumearen arloko ordezkari eratu ziren.

3.- Alkatetza honek, Antolakuntza eta Funtzionamendu Erregelamenduaren 124.2 artikulua ematen dizkion eskuduntzak erabiliz, Udalbatza Osoari, onets dezan, ondorengo

PROPOSAMENA EGITEN DIO:

Lehenik.- Izaera iraunkorreko ondorengo batzorde txostengileak eratzea:

- 1.^a- Hazienda eta Ondarea.
- 2.^a- Udal antolakuntza.
- 3.^a- Hirigintza.
- 4.^a- Kultura, turismo eta merkataritza.
- 5.^a- Euskara.
- 6.^a- Zerbitzu, landa-ingurunea eta ingurumena.
- 7.^a- Gizarte-ongizatea.
- 8.^a- Parte hartzea, berdintasuna, migrazioa eta hezkuntza.
- 9.^a Gazteria eta kirola.

Bigarren.- Kontuen Batzorde Bereziaren funtzioak, Hazienda eta Ondare batzordeak beteko ditu.

Hirugarren.- Batzorde txostengile guztiek, gutxienez hilean behin egingo dituzte bilera eta Batzordeburuaren esku gelditzen da bilera horiek egiteko eguna eta ordua jartzea.

Laugarren.- Batzorde bakoitza, Udalean ordezkari duten talde politiko guztietako ordezkari dagokien proportzioan esku hartzen dutela eratu izango da.

Bosgarren.- Horren ondorioz, batzorde guztiak zortzi zinegotziz osatuta egongo dira eta banaketa ondorengo izango da:

BILDU.....	2
EAJ.....	2
PSE-EE/PSOE.....	1
H1.....	1
P.P.....	1
ARALAR.....	1

Seigarren.- Talde politiko bakoitzak batzorde bakoitzean izango dituen ordezkarien izendapen zehatza, Alkatetzako ebazpen bidez egingo da, talde politiko bakoitzeko bozeramaileak idatziz proposamena eginda.

Zazpigarren.- Herritarren partaidetzari ere leku ematearren, batzorde bakoitzean, zinegotzi ez diren ordezkariak ere sartu ahal izango dira, aldez aurretik batzordeburuari adierazita.

Zortzigarren.- Batzorde bakoitzeko batzordeburuaren izendapena, Alkatetzako dekretu bidez egingo da.

Bederatzigarren.- Batzorde bakoitzaren eginkizunak eta funtzioak, proposamen honen eranskinean izendatzen diren gaiekin lotuta egongo dira.

Hamargarren.- Batzordeen funtzionamendua, erakunde lokalen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Erregelamenduko 134. artikulutik 138.erakoetan ezarrita dauden arauei doituko zaie.”

ERANSKINA

**OGASUNA ETA ONDAREAREN BATZORDE INFORMATZAILEA ETA KONTUETARAKO BATZORDE BEREZIA /
COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA Y PATRIMONIO Y COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS 20.
URTEA /
AÑO 2011**

EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK / COMETIDOS Y FUNCIONES ARLOAK / AREAS	GAIK / ASUNTOS
OGASUNA / HACIENDA	ORDENANTZA FISKALAK / ORDENA. FISCALES AURREKONTUAK / PRESUPUESTOS KREDITU ALDAKETAK / MODIFICACIONES CRÉDITO KONTU OROKORRA / CUENTA GENERAL ZERGA BILKETA / RECAUDACIÓN ORDAINKETA-GERORATZEAK/ APLAZAMIENTOS DE PAGO SARRERA-ITZULKETAK / DEVOLUCIONES E INGRESOS BAJAK / BAJAS KREDITU ERAGIKETAK / OPERACIONES DE CRÉDITO DIRULAGUNTZAK / SUBVENCIONES HIPOTEKAK / HIPOTECAS FIDANTZAK / FIANZAS

<p>ONDAREA / PATRIMONIO</p>	<p>Lehenengo kasuan ezik, aldez aurretik hirigintza batzordeko txostena beharko da: / Salvo en el primer caso, en los demás será necesario informe de la comisión de urbanismo: INBENTARIOA / INVENTARIO ONDASUN-INSKRIPZIOA / INSCRIPCIÓN DE BIENES DESAFEKTAZIOA/ DESAFECTACIÓN ESKURATZEAK / ADQUISICIONES BESTERENTZEAK / ENAJENACIONES TRUKEAK / PERMUTAS LAGAPENAK / CESIONES PROBETXAMENDUA /APROVECHAMIENTO ERRENTAMENDUAK / ARRENDAMIENTO DEFENTSA / DEFENSA MUGAKETAK / DESLINDE</p>
-----------------------------	--

UDAL ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATZAILEA / COMISIÓN INFORMATIVA DE ORGANIZACIÓN MUNICIPAL 2011 URTEA / AÑO 2011

<p>EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK / COMETIDOS Y FUNCIONES ARLOAK / AREAS</p>	<p>GAIAK / ASUNTOS</p>
<p>ORDENA PUBLIKOA / ORDEN PÚBLICO</p>	<p>EPAITEGIA / JUZGADO ISUNAK / MULTAS ARMAK / ARMAS UDALTZAINZTA / POLICIA MUNICIPAL ELKARBIZITZA / CONVIVENCIA PORTAERA / CONDUCTA BABES ZIBILA / PROTECCIÓN CIVIL HONDAMENDI PUBLIKOAK / CALAMIDADES PÚBLICAS</p>
<p>PERTSONALA</p>	<p>PLANTILA / PLANTILLA OSASUN ETA PREBENTZIO LABORALA / SALUD Y PREVENCIÓN LABORAL LIZENTZIAK ETA BAIMENAK / LICENCIAS Y PERMISOS OPORRAK / VACACIONES ORDUTEGIA / HORARIO DISZIPLINA /DISCIPLINA KONTRATAZIOAK, NOMINAK / CONTRATACIONES, NÓMINAS GIZARTE-SEGURANTZA / SEGURIDAD SOCIAL</p>
<p>ZIRKULAZIOA/ CIRCULACIÓN</p>	<p>BIDE HEZKUNTZA / EDUCACIÓN VIAL ISTRIPUAK / ACCIDENTES ISUNAK / MULTAS TXIRRINDULARI-PROBAK / PRUEBAS CICLISTAS APARKALEKUAK / APARCAMIENTOS HESIAK / VALLAS GARABIA / GRUA GARRAIOAK / TRANSPORTES</p>

	TRAFIKOA / TRAFICO SEMAFOROAK / SEMÁFOROS SEINALEAK / SEÑALES
BESTE BATZUK / OTROS	SINDIKATUAK / SINDICATOS BARRAKAK/ BARRACAS HIRI-POLIZIA/ POLICIA URBANA

**HIRIGINTZA BATZORDE INFORMATZAILEA / COMISIÓN INFORMATIVA DE URBANISMO. 2011.
URTEA / AÑO
2011.**

EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK / COMETIDOS Y FUNCIONES ARLOAK / AREAS	GAIAK / ASUNTOS
HIRIGINTZA / URBANISMO	PLANEAMENDUA / PLANEAMIENTO URBANIZAZIOA / URBANIZACIÓN ERREPARTZELAZIOA / REPARCELACIÓN ERAIKINA / EDIFICACIÓN BAIMENAK / LICENCIAS ETXEBIZITZA / VIVIENDA HIRIGINTZA DISZIPLINA/DISCIPLINA URBANÍSTICA
OBRAK / OBRAS	KONTRATAZIOA / CONTRATACIÓN NAHITAEZKO DESJABETZA / EXPROPIACIÓN FORZOSA BIDE PUBLIKOAK / VÍAS PÚBLICAS ZOLAZTADURA / PAVIMENTACIÓN
BESTE BATZUK / VARIOS	JARDUERA GOGAIKARRIAK / ACTIVIDADES MOLESTAS KUTSADURA / CONTAMINACIÓN KEAK / HUMOS ZARATAK / RUIDOS

KULTURA, TURISMO ETA MERKATARITZA BATZORDE INFORMATZAILEA / COMISSION INFORMATIVA DE CULTURA, TURISMO Y COMERCIO 2011. URTEA / AÑO 2011

EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK / COMETIDOS Y FUNCIONES ARLOAK / AREAS	GAIAK / ASUNTOS
KULTURA / CULTURA	LIBURUTEGIA / BIBLIOTECA KULTUR ETXEA / CASA DE CULTURA ARGITARAPENAK / PUBLICACIONES MONUMENTUAK / MONUMENTOS ARTEA / ARTE MUSIKA / MÚSICA ERAKUSKETAK / EXPOSICIONES ARTISAUTZA / ARTESANIA JAIK / FESTEJOS LEHIAKETAK / CONCURSOS HITZALDIK / CONFERENCIAS JAIALDIK / FESTIVALES KANTALDIK / RECITALES IKUSKIZUNAK / ESPECTÁCULOS ZINEA / CINE ANTZERKIA / TEATRO OHITURAK / COSTUMBRES
TURISMOA / TURISMO	TURISMOAREN SUSTAPENA IGARTZAKO MULTZO MONUMENTALA / CONJUNTO MONUMENTAL DE IGARTZA
MERKATARITZA/COMERCIO	MERKATARITZAREN SUSTAPENA / PROMOCIÓN DEL COMERCIO

EUSKARA BATZORDE INFORMATZAILEA/COMISSION INFORMATIVA DE EUSKARA 2011. URTEA/ AÑO 2011

EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK / COMETIDOS Y FUNCIONES ARLOAK / AREAS	GAIAK / ASUNTOS
EUSKARA / EUSKERA	HIZKUNTZA SUSTAPENA / PROMOCIÓN DEL IDIOMA BIZIBERRITZE PLANA / PLAN GENERAL DE PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA ITZULPENAK / TRADUCCIÓN SUBENTZIOAK / SUBVENCIONES LEHIAKETAK / CONCURSOS

**ZERBITZU, LANDA INGURUNEA ETA INGURUMEN BATZORDE INFORMATZAILEA. 2011. URTEA /
COMISIÓN INFORMATIVA DE SERVICIOS, MEDIO RURAL Y MEDIO AMBIENTE / AÑO 2011**

<i>EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK / COMETIDOS Y FUNCIONES ARLOAK / AREAS</i>	GAIAK / ASUNTOS
<i>HILERRIA / CEMENTERIO HILOBIAK / NICHOS</i>	<i>PLAKAK / PLACAS HILOBIRATZEAK / ENTERRAMIENTOS</i>
<i>URA / AGUA</i>	<i>UR-KUDEAKETAREN JARRAIPENA / SEGUIMIENTO DE LA GESTIÓN DEL AGUA</i>
<i>ESTOLDERIA / ALCANTARILLADO</i>	<i>ESTOLDERI KUDEAKETAREN JARRAIPENA SEGUIMIENTO GESTIÓN DEL ALCANTARILLADO</i>
<i>ZABORRAK / BASURAS</i>	<i>ZABOR BILKETA KUDEAKETAREN JARRAIPENA SEGUIMIENTO GESTIÓN DE BASURAS</i>
<i>ARGITERIA / ALUMBRADO</i>	<i>ARGITERIA PUBLIKOA / ALUMBRADO PÚBLICO UDALAREN ERAIKINEN ARGITERIA / ALUMBRADO EDIFICIOS PÚBLICOS</i>
<i>GARBIKETA / LIMPIEZA</i>	<i>KALE GARBIKETAREN JARRAIPENA / LIMPIEZA VIARIA ERAIKINEN GARBIKETAREN JARRAIPENA / LIMPIEZA EDIFICIOS</i>
<i>MANTENIMENDUA / MANTENIMIENTO</i>	<i>ERAIKINAK / EDIFICIOS KALEAK / VIALES HIRI ALTZARIAK / MOBILIARIO URBANO ESPALOIAK / ACERAS INSTALAZIOAK / INSTALACIONES</i>
<i>PARKEAK / PARQUES</i>	<i>LORATEGIAK / JARDINES BERDEGUNEAK / ZONAS VERDES UME-PARKEAK / PARQUES INFANTILES INUSKETAK / PODAS</i>
<i>LANDA SUSTAPENA / PROMOCIÓN RURAL</i>	<i>AUZOAK / BARRIOS BASERRIAK / CASERIOS BIDEAK / CAMINOS MENDI ETA BASOAK / MONTES Y BOSQUES</i>
<i>BARATZA SOZIALAK/ HUERTAS SOCIALES</i>	<i>INGURUNEAREN IKERKETA ETA GARAPENA/ ESTUDIO Y DESARROLLO DE ZONAS</i>

AZOKA / MERCADO	AZOKAKO POSTUAK / PUESTOS DELMERCADO KIOSKOA/ QUIOSCO AZOKA BEREZIAK / FERIAS ESPECIALES
ALOKAIRUAK / ALQUILERES	UDAL ONDASUNEN ALOKAIRUA / ALQUILER DE BIENES MUNICIPALES
INGURUMENA / MEDIO AMBIENTE	TOKIKO AGENDA XXI / AGENDA LOCAL XXI ESKUALDEKO AGENDA XXI / AGENDA COMARCAL XXI ESKOLAKO AGENDA XXI / AGENDA ESCOLAR XXI UDALSAREA / RED AYUNTAMIENTO

GIZARTE ONGIZATE BATZORDE INFORMATZAILEA. 2011 URTEA / COMISIÓN INFORMATIVA DE BIENESTAR SOCIAL / AÑO 2011

EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK / COMETIDOS Y FUNCIONES ARLOAK / AREAS	GAIAK / ASUNTOS
ONGIZATEA / BIENESTAR SOCIAL	GIZARTE ONGIZATEA / ACCIÓN SOCIAL ARANGOIRI EGOITZA / RESIDENCIA ARANGOITI ERRETIRATUEN ETXEA / HOGAR DEL JUBILADO ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA / AYUDA A DOMICILIO EGUNEKO ZENTROAK / CENTROS DE DÍA ETXE BABESTUAK / VIVIENDAS TUTELADAS EZINDUAK/ DISCAPACIDAD GURUTZE GORRIA / CRUZ ROJA DROGA-MENDEBASUNA / DROGODEPENDENCIA KONTSUMOA / CONSUMO GARAPENERAKO LANKIDETZA / COOPERACIÓN AL DESARROLLO ELKARTEAK/ ASOCIACIONES GIZARTE-BAZTERKETA / EXCLUSIÓN SOCIAL
SANITATEA / SANIDAD	ANIMALIEN ORDENANTZA / ORDENANZA ANIMALES
FAMILIA / FAMILIA	BABESIK GABE EDO ARRISKU EGOERAN DAUDEN HAUR ETA GAZTEAK / MENORES Y ADOLESCENTES EN SITUACIONES DE RIESGO O DESPROTECCIÓN APOYO A FAMILIAS CON PERSONAS DEPENDIENTES

**PARTE HARTZEA, BERDINTASUNA, MIGRAZIOA ETA HEZKUNTZA BATZORDE INFORMATZAILEA/
COMISIÓN INFORMATIVA DE PARTICIPACIÓN, IGUALDAD, MIGRACIÓN Y EDUCACIÓN.**

<p>EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK / COMETIDOS Y FUNCIONES ARLOAK / AREAS</p>	<p>GAIAK / ASUNTOS</p>
<p>PARTE HARTZEA / PARTICIPACIÓN</p>	<p>HERRITARREN PARTE HARTZEA/PARTICIPACIÓN CIUDADANA PARTE HARTZE ESPEZIFIKOAREN ORDENANTZA/ORDENANZA ESPECÍFICA DE PARTICIPACIÓN UDAL ORGANOKO PARTE HARTZEAREN GARAPENA DESARROLLO DE POLÍTICA DE PARTICIPACIÓN EN ORGANOS MUNICIPALES</p>
<p>BERDINTASUNA / IGUALDAD</p>	<p>BERDINTASUN PLANA / PLAN DE IGUALDAD EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA / VIOLENCIA DE GENERO</p>
<p>MIGRAZIOA/MIGRACIÓN</p>	<p>ANIZTASUNAREN UDAL KONTSEILUA/ CONSEJO MUNICIPAL DE DIVERSIDAD</p>
<p>HEZKUNTZA/EDUCACIÓN</p>	<p>HAUR ESKOLA IKASTETXEAK/ESCUELAS HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA / EPA EUSKAL CURRICULUMA/ BAZTERTUAK IZATEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONENTZAKO LAN ETA FORMAIZIOA IKASTAROAK/ PROGRAMAS DE EMPLEO Y FORMACIÓN PARA PERSONAS EN SITUACIÓN DE RIESGO DE EXCLUSIÓN SOCIAL</p>

GAZTERI ETA KIROLA BATZORDE INFORMATZAILEA. 2011. URTEA / COMIISIÓN INFORMATIVA DE JUVENTUD Y DEPORTE / AÑO 2011

EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK / COMETIDOS Y FUNCIONES ARLOAK / AREAS	GAIAK / ASUNTOS
GAZTERIA / JUVENTUD	GAZTEEN GUNEAK/ LUGARES PARA JÓVENES GAZTEEN EKINTZAK / ACTIVIDADES JUVENILES
KIROLAK / DEPORTE	KIROLAREN PROMOZIOA / PROMOCIÓN DEL DEPORTE KIROL ELKARTEAK / ASOCIACIONES DEPORTIVAS ESKOLA KIROLA / ESCUELA DEL DEPORTE BERTAKO KIROLLEN SUSTAPENA/ PROMOCIÓN DEL DEPORTE AUTÓCTONO

Hitz egiteko txanda eman ondoren, honelako iritziak azaldu dira:

Unai Baztarrika Otegi jaunak (Aralar), proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Josi Insausti Mujika jaunak (H1): “Euskera eta Kultura bananduta azaltzen dira. Lehengo legealdian batu egin ziren eginkizunak lotuta daudelako eta orain ere gure ustetan batze horrek bien arteko elkarlana ekarriko luke. Haustura hori sortzea, ordea, ez luke inolako mesederik ekarriko, bi arloetako teknikari bakarra dagoelako.

Bestalde, Kulturari bi arlo gehiago eransten zaizkio: turismoa eta merkataritza, baina Kulturak lehendik ere zama handia du eta horrek ez dio inolako mesederik egingo. Gure asmoa ere, turismoa eta merkataritza sustatzea da, baina ez kulturari lotuta, zeren eta kulturak dituen egin beharrekin, merkataritzaren bertan behera geldituko litzateke.

Zerbitzu batzordearen eginkizunetan, azoka bereziak aurreikusten dira, baina gure iritziz, horiek merkataritzan egon beharko lirateke.

Gizarte-ongizate batzordean sanitate arloa dago, animalien ordenantza gaiarekin. Pentsatzen dut gai hau gehiago dagokiola Udal Antolakuntza batzordeari gizarte-ongizate batzordeari baino. Badakit lehendik zegoena hartu dela, baina lehengo legealdian ere gai honetaz arduratu beharreko batzordea zein izan behar zenari buruz zalantza zegoen.

Esandakoak esanda, egiten dudana proposamena horrelakoa izango litzateke:

- 1.- Hazienda eta ondarea berdin geratuko litzateke.
- 2.- Udal Antolakuntzari, sanitatea gehitu beharko litzaioke, animalien ordenantza gaiarekin.
- 3.- Hirigintza.
- 4.- Kultura eta euskara.
- 5.- Turismo eta Merkataritza eta honen barruan eta merkataritza sustapenarekin batera, azoka bereziak gehitu.
- 6.- Zerbitzu, Landa Ingurunea eta Ingurumena, baina azoka bereziak kenduta.
- 7.- Gizarte-ongizatea, animalien ordenantza kenduta.
- 8.- Parte hartzea, berdintasuna, migrazioa eta hezkuntza.
- 9.- Gazteria eta kirola.

Fernando Boada González jaunak (PSE-EE/PSOE): “Tal y como ha comentado Josi en la anterior legislatura Euskera y Cultura, tuvo una votación en este pleno y en aquel momento a quien gobernaba le echamos para atrás su propuesta y se mantuvo el que estuviera unida. Dado que nuestro partido apoyo el que estuviera unido Cultura y Euskera, y ahora vamos a mantener ese mismo criterio, con lo que la propuesta que se nos hace nosotros no la aceptamos. En cuanto al tema del comercio, yo le había denominado comercio, feria y turismo, porque ya que se va a potenciar el comercio y el turismo, pensamos que todas las ferias deben de estar integradas en lo que sería el comercio, más que meterlo en servicios. Respecto de lo comentado por Josi de la sanidad animal, no sólo es ese tema, sino también el tema de las perreras. Parece que es prudente meterlo en organización municipal o tal vez en servicios. En consecuencia aceptamos la propuesta realizada por Josi.

También queremos comentar lo siguiente: en el tercer punto de la propuesta donde dice: “*Todas las comisiones informativas celebrarán sus sesiones ordinarias como mínimo una vez al mes, quedando a facultad del Presidente efectivo la fijación del día y hora de su celebración.*”, debería decir en nuestra opinión: “Todas las comisiones informativas celebrarán sus sesiones ordinarias como mínimo una vez al mes, fijándose la hora y día de su celebración, previo acuerdo de los miembros de la comisión.”

Hasta ahora ha funcionado así y ha sido un funcionamiento correcto, y pensamos que los miembros de la comisión tenemos algo que decir sobre cuando se van a celebrar.

Pediríamos por lo tanto, que se modificara este punto y apoyaríamos la propuesta planteada por Josi.”

Julio Herreros Serna jaunak (PP): “De acuerdo con la propuesta presentada por el representante de H1”.

Aitor Aldasoro Iturbe jaunak (EAJ): “Guk Kultura eta Euskara batean ikusten ditugu, batez ere eginkizunegatik. Lan-karga kontuan hartuz, iruditzen zaigu euskara kulturaren bertan txertatzen dela bien arteko koordinazioa hobea delako. Alde horretatik guk, aurkako proposamen horri babesa ematen diogu.

Hortik kanpo, bi aipamen egin nahi nituzke lehen funtzionatzen zuten bi batzordeei buruz eta gure ustetan mantendu beharko liratekeenak, hau da: Igartzako eta Arana kaleko batzorde bereziak. Azken hau hasi besterik ez da egin eta horrez gain Jaurlaritzan martxan daukan BIZIGUNE programarekin hutsik dauden etxebizitzak betetzeko ematen ari diren pausoak, mantendu egin behar direla. Urteen poderioz martxan galtzen badu kentzearen alde egongo ginateke, baina momentuz hasi berria denez horren alde egiten dugu.

Hauek mantentzen badira ados egongo ginateke aurkako proposamenarekin.”

Josi Insausti Mujika jaunak (H1): “Onartzen dut nik egindako proposamenean PSE-EE/PSOEren eta EAJren ordezkariak esan dutena sartzea.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, aurkako proposamena bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, PP,)

Aurkako botoak: 7 (BILDU, ARALAR)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik.- Izaera iraunkorreko ondorengo batzorde txostengileak eratzea:

- 1.- Hazienda eta ondarea.
- 2.- Udal Antolakuntza, sanitate arloa aurreikusiz eta bertan animalien ordenantza gaia.
- 3.- Hirigintza.
- 4.- Kultura eta euskara.
- 5.- Turismo eta Merkataritza, merkataritza sustapenarekin batera, azoka bereziak aurreikusiz.
- 6.- Zerbitzu, Landa Ingurunea eta Ingurumena, baina azoka bereziak kenduta.
- 7.- Gizarte-ongizatea, animalien ordenantza kenduta.
- 8.- Parte hartzea, berdintasuna, migrazioa eta hezkuntza.
- 9.- Gazteria eta kirola.

Bigarren.- Kontuen Batzorde Bereziaren funtzioak, Hazienda eta Ondare batzordeak beteko ditu.

Hirugarren. Igartzako eta Arana kalea birgaitzeko batzorde bereziak berreskuratzea, aurreko legealdian zituzten funtzioekin:

Arana kalea birgaitzeko batzorde berezia. Funtzioak:

- AYTASArekin batera, behin betiko lan egitaraua aztertuko du, kronologia eta edukiaren xehetasunekin eta lanaren segimendua erraztuko duten bilera teknikoan egutegia adostuko du.
- Kudeaketa lanen esleipendunari, bidezkoak diren aginduak emango dio, lan horiek ondo garatu daitezzen.
- BIZIGUNE

Igartzako batzorde berezia. Funtzioak:

- Igartzako plan estrategikoa.
- Egun dauden eraikinen berreskuratze-proiektua.
- Inguruaren hirigintza-proiektuak.
- Erabilpen-esleipenak. Hirigintza-planak eta ordenantzak.
- Gastuen onespina.
- Ikerkuntzak.

Laugarren.- Batzorde txostengile guztiak, gutxienez hilean behin egingo dituzte bilerak eta bilera horiek egiteko eguna eta ordua, batzordeko kideek aldeztu aurretik adostutakoa izango da.

Bosgarren.- Batzorde bakoitza, Udalean ordezkariak duten talde politiko guztietako ordezkariak dagokien proportzioan esku hartzen dutela eratu izango da.

Seigarren.- Horren ondorioz, batzorde guztiak zortzi zinegotziz osatuta egongo dira eta banaketa ondorengoa izango da:

BILDU.....	2
EAJ.....	2
PSE-EE/PSOE.....	1
H1.	1
P.P	1
ARALAR.....	1

Zazpigarren.- Talde politiko bakoitzak batzorde bakoitzean izango dituen ordezkarien izendapen zehatza, Alkatetzako ebazpen bidez egingo da, talde politiko bakoitzeko bozeramaileak idatziz proposamena eginda.

Zortzigarren.- Herritarren partaidetzari ere leku ematearren, batzorde bakoitzean, zinegotzi ez diren ordezkariak ere sartu ahal izango dira, alde zurretik batzordeburuari adierazita.

Bederatzigarren.- Batzorde bakoitzeko batzordeburuaren izendapena, Alkatetzako dekretu bidez egingo da.

Hamargarren.- Batzorde bakoitzaren eginkizunak eta funtzioak, proposamen honen eranskinean izendatzen diren gaiekin lotuta egingo dira.

Hamaikagarren.- Batzordeen funtzionamendua, erakunde lokalen Antolaketak, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Erregelamenduko 134. artikulutik 138.era koetan ezarrita dauden arauak dituko zaie.”

4.- UDAL ORDEZKARIAK. Erakunde kolegiatu eta udal-ordezkariak izendatzeko proposamena.

Koldo Agirre Mujika, Alkate jaunak (BILDU) adierazi du beraien asmoa dela proposamen hau mahai gainean uztea, beste udal taldeekin hitz egiteko eta adostasun batera iristeko.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, beste udal taldeetako udal zinegotziek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Beraz, puntu hau mahai gainean utzi da.

5.- TALDE POLITIKOEN ASIGNAZIOAK ETA ALKATEAREN SOLDATA. Talde politikoaren asignazio ekonomiko eta Alkatearen soldatari buruzko proposamena.

Koldo Agirre Mujika, Alkate jaunak (BILDU) proposamenaren berri eman du eta esan du puntu puntu bozkatu daitekeela edo osotasunean:

“Gaia: Alkatea eta talde politikoaren asignazio ekonomikoak.

Alkatetza honek Udalbatza Osoari, ondorengo erabaki-proposamena egiten dio Alkatea eta talde politikoaren asignazio ekonomikoari buruz:

Alkatearen soldata.

Alkatearen ordain-saria hileko gordina 4.031,21 €koa izatea eta urteko gordina 56.436,94 €koa izatea proposatzen da.

Talde politikoaren asignazioak

1.- Udal Taldeak bere eginkizunak burutzeko gastuak hornitzeko:

- Taldeko : 300,00 euro/hileko.
- Zinegotzi bakoitzeko (“eserlekuko”): 200,00 euro/hileko.

2.- Batzorde informatiboko lehendakariari eta Gobernu Batzordeko kidei organo kolegiatueta joateagatik ordaindu beharrekoa:

- Batzorde informatiboetako bileretara edota Gobernu Batzordeko bileretara: 175 €.
- Udalbatza Osoaren bileretara: 250 €.

Atal honetan urteko ordaindu behar dena ez da 8.750 € baino gehiago izango.

3.- Beste zinegotzietan organo kolegiatueta joateagatik ordaindu beharrekoa:

- Batzorde informatiboetako bileretara: 130 €.
- Udalbatza Osoaren bileretara: 185 €.

Atal honetan urteko ordaindu behar dena ez da 6.000 € baino gehiago izango.

Egunerokotasuna, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren urteen arteko KPIaren arabera egingo da, urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.”

Jarraian adierazi du, aurtengo urtea urte erdia denez, proportzionaltasuna mantenduko litzakeela.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Josi Insausti Mujika jaunak (H1), Alkateak esandakoaren arabera proposatu du bi bozketa egitea, alde batetik, Alkatearen soldata eta bestetik, zinegotzien asignazioak.

Aitor Aldasoro Iturbe jaunak (EAJ): “Guri ere ondo iruditzen zaigu Alkatearen soldata bere horretan errespetatzea, nahiz eta guk ados egon EUDELek finkatutako irizpideekin. Udal talde eta zinegotzientzat proposatzen diren asignazioak ere aztertu ditugu eta oso ondo iruditzen zaigu zinegotzietan ordaintzea bileretara joateagatik eta joaten ez denari ordainsaririk ez ematea, baina aurreko legealdiarekiko konparaketa egiten bada ikusten da proposamen honekin ordezkariak xumeena duten alderdiak kaltetuena ateratzen direla. Gure proposamena alde horretatik doa, hau da, Alkatearen soldata onartu eta beste guztia denok mahai batean eseri eta hitz egin.”

Koldo Agirre Mujika, Alkate jaunak (BILDU): “Guk egindako kalkuluetan %30eko beherakada dago.”

Fernando Boada González jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros no vamos a entrar en el sueldo del Alcalde. El que se ha presentado lo vamos a aceptar así como en el que se presentó en la anterior legislatura también lo aceptamos porque pensamos que Beasain tiene entidad suficiente como para tener una

persona liberada. El Alcalde debe de estar liberado porque va a gestionar un presupuesto de casi más de 20 millones de euros, y se debe de dedicar exclusivamente al Ayuntamiento. Sabemos que tiene que estar el puesto dignificado y por ello procede pagar. No obstante, también tenemos que decir que se nos entregaron estos datos el lunes, no ha habido opción a negociación, por lo que consideramos que el planteamiento que se nos dijo de que con lo que se hacía aquí se conseguía un ahorro de un 30% con respecto a la legislatura pasada, tiene también una pequeña trampa porque parece que en septiembre se piensa plantear la posible liberación de dos personas del grupo de Alcaldía. Por lo tanto ese 30% dejaría de serlo y como consideramos que también somos perjudicados como partido, en este caso minoritario, solicitamos que el tema de las asignaciones se quede sobre la mesa para poder discutirlo con más tranquilidad.”

Julio Herreros jauna (PP), Alkatearen soldatarekin ados azaldu da baina talde politikoen asignazioarena ere hitz egin behar dela adierazi du.

Koldo Agirre Mujika, Alkate jaunak (BILDU): “Lo que tenemos pensado es que haya un liberado o dos medios. Hay bastante diferencia.”

Josi Insausti Mujika jaunak (H1): “Guk onartzen dugu EAJk egiten duen proposamena. Alde batetik, logikoa da Alkatea liberatuta egotea eta gaur hemen hartu daitekeen erabakiaren kaltetua ez izatea. Horregatik planteatu dut bi bozka egitea. Bigarren multzo honetan, ordea, Udalbatza Osoetara etortzeagatik batzorde buruek berriro gehiago jasotzeko eskubidea izatea, batzorde buru izateagatik ere horrela izanda, ez dugu bidezkoa ikusten. Horregatik bat egiten dugu EAJren proposamenarekin, hau da, bigarren atal hau mahai gainean uztea eta denon artean adostasun batera iristea.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, Alkatearen soldatari buruzko proposamena bozkatu da eta aho batez onartu da, adieraziz bere karguan dedikazio eskusiboarekin arituko dela.

Aho batez ere erabaki da, talde politikoen asignazioak mahai gainean uztea.

6.- ALKATETZAREN EBAZPENAK

Koldo Agirre Mujika, Alkate jaunak (BILDU), 2011ko uztailaren 4an emandako ondorengo ebazpenen berri eman du:

a.- Alkateordeen eta Gobernu Batzordearen kideen izendapena.

ALKATEAREN EBAZPENA

Gaia: Alkateordeak eta Gobernu Batzordeko kideak izendatzea.

Alkatetza honek, legeriak ematen dizkidan eskurantzak erabiliz eta Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,2 eta 23,1 artikulua eta azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretuak, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 41,3, 46,1 eta 52,2 artikulua dioenaren arabera, ondorengo

EBAZTEN DU

Lehenik. Lehen, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren Alkateordeak eta Gobernu Batzordeko kideak hurrenez hurren izendatzea, indarrean dauden udal arauteriak ematen dizkien eskuduntza eta prerrogatiba guztiekin, Udal honetan ordezkari izan dauden ondorengo zinegotziak:

- 1.- **M^a MAR CELAYA GONZALEZ**
- 2.- **UNAI BAZTARRIKA OTEGI**
- 3.- **AITOR ALDASORO ITURBE**
- 4.- **FERNANDO BOADA GONZALEZ**
- 5.- **JOSI INSAUSTI MUJICA.**

Bigarren. Ebazpen honen berri zinegotzi interesatuei ematea. Udalbatza Osoari jakinaren gainean jartzea egiten duen lehenengo bileran eta aldi berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

b.- Gobernu Batzordearen eginkizunak

ALKATETZAREN EBAZPENA

GAIA: GOBERNU BATZORDEKO EGINKIZUNAK

Alkatetza honek egun indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz eta Toki Jaurbideen oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 eta 23.2b) artikuluetan xedatutakoa kontuan izanik, ondorengo

EBAZTEN DU

Lehenik. 60.100 €tik gorako gastuen baimena eta erabilera, Gobernu Batzordean eskuordetzea, hala nola, kontratazio administratiboak, obra-proiektuak, ondare besterentzea eta ondarea erostea, dirulaguntzak, ondarezko erantzukizun aitormena etab.

Bigarren. Gainera eginkizunik hauek izango ditu:

Gai hauei buruz aholkularitza eta kontsulta:

- Enplegu eskaintza publikoa.
- Pertsona hautatzeko oinarriak.
- Pertsona laborala bidaltzea eta funtzionarioak zerbitzutik apartatzea.
- Sei hilabete baino gehiagoko diren lan-kontratuak
- BBEB, repartzelazio proiektuak eta hirigintza proiektuak.

- *Txosten tekniko eta irizpide politikoen artean kontraesanak.*
- *Txosten teknikoen artean kontraesana.*
- *Batzorde bateko Lehendakariak edo ordezkariak bidezkoa deritzon.*

c.- Batzorde informatiboen lehendakarien izendapena

Koldo Agirre Mujika, Alkate jaunak (BILDU): Batzorde informatiboen lehendakarien izendapenen berri ez dut emango. Utzi egingo dugu, batzordeak aldatu egin direlako. Momentuz ni izango naiz batzordeetako lehendakaria eta berriro emango dut ebazpena lehendakariak izendatuz.

Udal Patronatuen lehendakaritza, zinegotzi hauei ordezkatuko zaizkie:

1.- Udal Euskaltegiko Fundazio publikoko lehendakaritza, **AITOR LARBURU IZAGUIRRE** (BILDU), zinegotzi jaunari eskuordetu zaio.

2.- Loinatz Musika Eskola Publikoko Fundazio patronatuko lehendakaritza, **UNAI BAZTARRIKA OTEGI** (ARALAR), zinegotzi jaunari eskuordetu zaio.

3.- Kirolaren Udal Erakundearen lehendakaritza, **ASIER SARRIEGUI ZUMARRAGA** (BILDU), zinegotzi jaunari eskuordetu zaio.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Aitor Aldasoro Iturbe jaunak (EAJ): “Gobernu Batzordean egiten den banaketarekin, parte-hartzea erraztea eskertzen da, baina proportzionaltasun printzipioa erabat hausten da, gobernuan dagoenaren alde. Ordezkaritza gutxiena duena, gobernu batzordean mantentzen da eta beste talde politiko bati bota egiten zaio inolako arrazoirik eman gabe. Jasota gera dadin gure kexa azaldu nahi dugu.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.